Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JFUG-IB68-AZLP-WSJY

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Maria Angeles Mateos Alpuente TÉCNICA DE CULTURA (24/09/2025 14:11 CEST)

UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERETARAKO IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEEN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO, INSTALACION Y ASISTENCIA TECNICA DE MEDIOS AUDIOVISUALES PARA ACTIVIDADES ORGANIZADAS POR EL AYUNTAMIENTO

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA, HEZKUTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / AREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2025ZAUN0023

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK
2. XEDEA
3. KONTRATUAREN IRISMENA
3.1 EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN TIPOLOGIA
3.2. BAZTERTZEKOAK
4. PROGRAMAZIO BALIOETSIA ETA EKINTZA MOTAK
5. ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK
6. GIZA BALIABIDEAK
6.1 GIZA BALIABIDEAK ATXIKITZEA
6.2 LANGILEEI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK
7. BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEA
8. HIZKUNTZA BALDINTZAK
9. ERANSKINAK

ÍNDICE

1. ANTECEDENTES
2. OBJETO
3. ALCANCE DEL CONTRATO
3.1. TIPOLOGÍA DE LOS SERVICIOS A PRESTAR
3.2. EXCLUSIONES
4. PROGRAMACIÓN ESTIMADA Y TIPOS DE ACTOS
5. OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA
6. RECURSOS HUMANOS
6.1. ADSCRIPCIÓN DE MEDIOS HUMANOS
6.2. CONSIDERACIONES RELATIVAS AL PERSONAL
7. ADSCRIPCIÓN DE RECURSOS MATERIALES
8. CONDICIONES LINGÜÍSTICAS
9. ANEXOS

1. AURREKARIAK

Urte osoan, Irungo Udalak era guztietako formatu eta klaseetako (zinema, musika, antzerkia, dantza, aurkezpenak, etab.) jarduera eszenikoak, kulturalak, soziokulturalak eta/edo protokolozkoak antolatzen ditu. Jarduera horiek

1. ANTECEDENTES

A lo largo de todo el año, el Ayuntamiento de Irun organiza actividades escénicas, culturales, socioculturales y/o protocolarias de todo tipo de formatos y clases (cine, música, teatro, danza, presentaciones, etc.). Estas actividades

Irungo udal-mugartean egiten dira, bai udal-ekipamenduetan (Amaia KZ, CBA adib.), bai bide publikoan.

se desarrollan dentro del término municipal de Irun, tanto en los diferentes equipamientos municipales (e.g. Amaia KZ, CBA), como en la vía pública.

Udalak jarduera horiek guztiak egin ahal izateko, ezinbestekoa da baldintza-plegu honen xedean deskribatzen diren lanak enpresa batek egitea, xedea baita udalak antolatutako jardueretan argia eta soinua emateko laguntza teknikoa ematea eta bitarteko eszenikoak eta/edo ikus-entzunezkoak alokatzeko ekipamendua hornitzea. Enpresa espezializatu baten laguntzarik gabe, ezin izango lirateke egin oinarrizko lanak, besteak beste, film bat proiektatu, musika-talde bat entzuteko aukera izan edo antzezpen eszeniko bat argiztatu. Horregatik, Udala aspalditik egiten ari den programazioa ez eteteko, eta ikusita hori aurrera eramateko Udalak baliabide pertsonal eta material nahikorik ez duela, ezinbestekoa da lizitazio hau egitea.

Para que el Ayuntamiento pueda llevar a cabo todas estas actividades es indispensable contar con una empresa que realice las tareas que se describen en el objeto de este pliego, a saber, la asistencia técnica de luz y sonido en actividades organizadas por el Ayuntamiento y suministro de equipamiento en régimen de alquiler de medios escénicos y/o audiovisuales. Sin la asistencia de una empresa especializada, no se podrían hacer, entre otras, tareas tan básicas como proyectar una película, hacer que un grupo de música se escuche o iluminar una representación escénica. Por ello, para no interrumpir la programación que el Ayuntamiento lleva realizando desde hace muchos años, y ante la insuficiencia de medios personales y materiales del Ayuntamiento para llevarlo a efecto, es imprescindible llevar a cabo esta licitación.

Jarduera bakoitzari erantzuteko, dauden baliabide teknikoak erabiliko dira (erantsita doaz II. Eta III. eranskinetan) udal-ekipamendu bakoitzean, edo, beste leku batzuetan egiten badira, behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnak. Era berean, egokiak diren giza baliabideak eskatuko dira, eta horiek espezialistak izan beharko dute diziplina eszenikoetan (mekanika, argiztapena, ikus-entzunezkoak, ekitaldien ekoizpen teknikoa…).

Para atender a cada actividad, se dispondrá de los medios técnicos existentes en cada equipamiento municipal (se adjuntan en el anexo II y III) o, en caso de que se realicen en otros emplazamientos, de los que sean necesarios para su correcto desarrollo. A su vez, se requerirá de los medios humanos que resulten oportunos, los cuales deberán ser especialistas en las diferentes disciplinas escénicas (mecánica, iluminación, audiovisual, producción técnica de eventos, etc.).

Azkenik, esan behar da jarduera-programazioa eta jarduerak egiteko ekipamenduak edo lekuak erabat alda daitezkeela formatuari, intentsitateari, tipologiei eta ezaugarriei dagokienez. Beraz, baldintza-agiri honetan, gutxi gorabehera, behar diren baliabide teknikoen eta giza baliabideen kopuruak zehaztuko dira, Irungo Udalak aurreko urteetan kontratatutako produkzioen historikoan egindako programazioetan oinarrituta.

Por último, resulta necesario indicar que la programación de actividades y los equipamientos o lugares en los que se llevan a cabo las actividades son totalmente variables en cuanto a su formato e intensidad, tipologías y características. Por lo tanto, en el presente pliego se concretarán orientativamente las cantidades de medios técnicos y humanos requeridos en base a las diferentes programaciones realizadas en el histórico de producciones contratadas por el Ayuntamiento de Irun en años anteriores.

2. XEDEA

2. OBJETO

Baldintza-plegu honen helburua da Udalak antolatutako jardueretan argi- eta soinu-laguntza teknikoa emateko eta bitarteko eszenikoak eta/edo ikus-entzunezkoak alokairuan emateko zerbitzuen kontratazioa arautzea, ezartzea eta planifikatzea, proiekzio-, argiztapen- eta soinu-sistemak eta Irungo Udalak antolatutako jarduera eszenikoak, kulturalak, soziokulturalak, protokolozkoak eta bestelakoak garatzeko beharrezkoak direnak barne, formatua eta espazioa edozein delarik ere (Amaia KZ, CBA eta abar edo aire zabalean udal-mugartean).

El objeto del presente pliego es regular, establecer y planificar la contratación de los servicios de asistencia técnica de luz y sonido y suministro en régimen de alquiler de medios escénicos y/o audiovisuales en actividades organizadas por el Ayuntamiento, incluidos los sistemas de proyección, iluminación, sonido y los que resulten necesarios para el desarrollo de las distintas actividades escénicas, culturales, socioculturales, protocolarias y de cualquier otra índole organizadas por el Ayuntamiento de Irun, en todos sus formatos y espacios, tanto en sus equipamientos (e.g. Amaia KZ, CBA), como al aire libre dentro de su término municipal.

3. KONTRATUAREN IRISMENA

Honako lan hauek egin beharko dira:

- Ikuskizunak muntatu, maneiatu, mantendu eta desmuntatzea diziplina eszeniko bakoitzean espezializatutako teknikari kualifikatuen bidez, baldintza-plegu honetan aurreikusitakoaren arabera.

- Horretarako aurreikusitako ekipamenduetan edo, hala dagokionean, aire zabalean jarduerak garatzeko behar diren ekipoak, gailuak eta azpiegiturak jartzea (e.g. proiekzio-sistemak, argiztapena, soinua).

3.1 EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN TIPOLOGIA

Bereziki, adjudikaziodunak lan hauek egin beharko ditu, gutxienez:

a) Konpainiek, produkzio-etxeek eta gainerako hirugarrenek bidalitako "rider" eskakizun teknikoak bete eta kudeatzea, eta haiek negoziatzea, beharrezko ekipoak proposatuz, bai Amaia KZn eta/edo Carlos Blanco Aguinaga Zentroan (CBA) daudenak, bai enpresa adjudikaziodunak eskainitakoak, hala dagokionean. Dagokion ekipo-proposamenaren

3. ALCANCE DEL CONTRATO

El alcance de los trabajos comprende:

- El montaje, manejo, mantenimiento y posterior desmontaje de los mismos por personal técnico cualificado y especializado en cada una de las disciplinas escénicas conforme a lo previsto en el presente pliego.

- La aportación de los equipos, dispositivos e infraestructuras necesarios para el desarrollo de las actividades en los equipamientos previstos a dichos efectos o, en su caso, al aire libre (e.g. sistemas de proyección, iluminación, sonido).

3.1 TIPOLOGÍA DE LOS SERVICIOS A PRESTAR

En particular, la adjudicataria deberá realizar, como mínimo, los siguientes trabajos:

a) Atender y gestionar los requerimientos técnicos "rider" enviados por las compañías, productoras y demás terceros, y su negociación, proponiendo los equipos necesarios, tanto los incluidos en el Amaia KZ y/o en el Centro Carlos Blanco Aguinaga (CBA), como, en su caso, los ofertados por la empresa adjudicataria. A efectos de la

ondorioetarako ("kontrariderra"), adjudikaziodunak kontuan izan beharko du une bakoitzean Amaia KZn eta/edo CBAn dagoen zuzkidura, eta, behar den neurrian, kontratuaren esparruan eskainitako ekipoekin osatu beharko du.

correspondiente propuesta de equipos ("contrarider"), la adjudicataria deberá tener en cuenta la dotación existente en cada momento en el Amaia KZ y/o en el CBA, complementándola, en lo necesario con los equipos ofertados en el marco del contrato.

b) Irungo Udalak eskatutako "rider" eskakizun teknikoak bete eta kudeatzea, beharrezko ekipoak proposatuz, bai Amaia KZn eta/edo Carlos Blanco Aguinaga Zentroan (CBA) daudenak, bai enpresa adjudikaziodunak eskainitakoak, hala dagokionean. Dagokion ekipo-proposamenaren ondorioetarako ("kontrariderra"), adjudikaziodunak kontuan izan beharko du une bakoitzean Amaia KZn eta/edo CBAn dagoen zuzkidura, eta, behar den neurrian, kontratuaren esparruan eskainitako ekipoekin osatu beharko du.

b) Atender y gestionar los requerimientos técnicos "rider" solicitados por el Ayuntamiento de Irun, proponiendo los equipos necesarios, tanto los incluidos en el Amaia KZ y/o en el Centro Carlos Blanco Aguinaga (CBA), como, en su caso, los ofertados por la empresa adjudicataria. A efectos de la correspondiente propuesta de equipos ("contrarider"), la adjudicataria deberá tener en cuenta la dotación existente en cada momento en el Amaia KZ y/o en el CBA, complementándola, en lo necesario con los equipos ofertados en el marco del contrato.

c) Udalak onetsitako beharrezko ekipoen proposamena ikusita ("kontrariderra"), alokairu-araubidean hornitzea Amaia KZn eta/edo Carlos Blanco Aguinaga Zentroan (CBA) egiten diren ekitaldietan eta Irungo toki-eremuan egiten diren ekitaldietan, aire zabalean nahiz beste gune batzuetan (e.g. Oiasso Museoa, Ikust Alaia), erabili beharreko bitarteko eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

Beharrezko ekipoen proposamenean ("kontrariderra"), zehaztuko da une bakoitzean erabiliko diren ekipoak nongoak diren, bai Amaia KZ eta/edo CBAn dagoen zuzkidurakoak, bai adjudikaziodunak hornidurarako eskaintzen dituenen artekoak.

c) A la vista de la propuesta de equipos necesarios ("contrarider") aprobada por el Ayuntamiento, suministrar en régimen de alquiler los medios escénicos y audiovisuales a utilizar en los actos que se desarrollen en el Amaia KZ y/o en el Centro Carlos Blanco Aguinaga (CBA) y en los actos que se desarrollen en el ámbito local de Irun, tanto al aire libre como otros espacios (e.g. Museo Oiasso, Ikust Alaia).

En la propuesta de equipos necesarios ("contrarider") se especificará qué equipos de la dotación existente en cada momento en el Amaia KZ y/o en el CBA que se utilizarán y qué equipos serán suministrados de entre los ofertados por la adjudicataria.

d) Jarduera bakoitza burutzeko beharrezko material guztia garraiatzea, kargatzea, deskargatzea, muntatzea, desmuntatzea, biltzea eta gordetzea,

d) Transportar, cargar, descargar, así como montar, desmontar y recoger y depositar todo el material necesario para cada actividad, incluyendo los

Amaia KZ eta/edo Carlos Blanco Aguinaga Zentroko (CBA) ekipoak erabiltzen direnean barne (Ekipo horiek jatorrizko lekura itzuli beharko dira).

supuestos de uso de los equipos del Amaia KZ y/o en el Centro Carlos Blanco Aguinaga (CBA), que deberán ser retornados a su lugar de origen.

Muntaketa eszenikoa jardueraren zehaztapen teknikoen arabera egingo da, informazio hau kontuan hartuta: Udalak onetsitako beharrezko ekipoen proposamena ("kontrariderra"), jardueraren dokumentazioa, ekitaldiaren arduradun tekniko eta artistikoen jarraibideak, etab. Adjudikaziodunaren langileak arduradun tekniko eta artistikoen esanetara egongo dira uneoro, jarduera behar bezala garatuko dela bermatzeko egin beharreko edozein aldaketa egiteko.

El montaje escénico se realizará conforme a las especificaciones técnicas de la actividad con referencia a la siguiente información: propuesta de equipos necesarios ("contrarider") aprobada por el Ayuntamiento, documentación de la actividad, indicaciones de las personas responsables técnicas y artísticas del evento, etc. El personal de la adjudicataria estará en todo momento a disposición de las personas responsables técnicas y artísticas para cualquier modificación que se requiera para garantizar el correcto desarrollo de la actividad.

e) Ekipoek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea, bai Udalaren ekipoek, bai adjudikaziodunak emandakoek, eta, arazo operatiborik izanez gero, neurri egokiak hartzea ikus-entzunezko materiala, bideoa, argiztapena, proiekzioa, makineria eszenikoa eta abar ezagutuz, kokatuz eta maneiatuz.

e) Comprobar el correcto funcionamiento de los equipos, tanto de los equipos propios del Ayuntamiento, como de los suministrados por la adjudicataria, adoptando las medidas oportunas en el caso de problemas operativos; conociendo, situando y manejando el material de audio, vídeo, iluminación, proyección, maquinaria escénica, etc.

f) Beharrezko giza baliabideak jartzea garraio-, karga- eta deskarga-lanak egiteko, ekipoak muntatzeko eta desmuntatzeko, eta ekipoak maneiatzeko eta mantentzeko. Adjudikaziodunak laguntza eman beharko du ekipoak muntatzerakoan, jarduerak garatzerakoan eta baita ekipoak desmuntatzerakoan ere. Horretarako, txantiloia edo "staff"-a egokitu beharko du, jarduera bakoitzaren beharren arabera. Horretarako, laguntza teknikoa eta sustengua emango da egin daitezkeen entseguetan eta/edo ekipamenduaren proba edo doikuntzetan (argiztapen-proiektoreen fokatzea, ikus-entzunezko ekipoen kalibrazioa, etab.), jarduera hasi aurretik.

f) Prestar los medios humanos necesarios para la realización de los trabajos de transporte, carga, descarga, así como el montaje y desmontaje de equipos, así como para su manejo y mantenimiento. La adjudicataria deberá prestar asistencia durante el montaje, desarrollo de las distintas actividades y hasta el desmontaje de los equipos, adecuando la plantilla o "staff" necesarios en función de las necesidades de cada actividad concreta. A estos efectos, se prestará asistencia técnica y apoyo durante los posible/s ensayo/s y/o pruebas o ajustes del equipamiento (enfoque de proyectores de iluminación, calibración de equipos audiovisuales,

etc.) previos a la actividad.

g) Zehazten diren jarduera eta ekitaldietan jarraipen- eta kontrol-lanak egin eta laguntza teknikoa ematea.

g) Realizar el seguimiento, control y asistencia técnica en las actividades objeto del presente contrato.

h) Bere kontura ziurtatzea jarduerak garatzeko behar diren ekipo guztiak eskura dituela, bai udalarenak berarenak, bai adjudikaziodunak hornitutakoak. Bereziki, adjudikazioduna arduratuko da eguraldi txarra denean babesteaz, bai Udalarenak berarenak, bai adjudikaziodunak hornitutakoak, eta bere ardurapean geratuko da. Kontratua indarrean dagoen bitartean, adjudikaziodunak erantzukizun zibileko poliza eduki beharko du, gutxienez 300.000 eurokoa

h) Asegurar a su cargo la disposición puntual de la totalidad de los equipos que se precisen para el desarrollo de las actividades, tanto propios del Ayuntamiento, como suministrados por la adjudicataria. En particular, la adjudicataria se hará cargo de la protección contra inclemencias meteorológicas de los equipos, tanto propios del Ayuntamiento como suministrados por la adjudicataria, quedando bajo su estricta responsabilidad. La adjudicataria deberá contar durante toda la vigencia del contrato con una póliza de responsabilidad civil con un límite no inferior a 300.000 euros.

i) Bere langileen eta, oro har, herritarren segurtasun-neurriak hartzea lanak egitean, eta, bereziki, segurtasunaren eta osasunaren alorrean aplikatzekoa den araudia betetzea.

i) Adoptar las medidas de seguridad del personal propio y de la ciudadanía en general durante la ejecución de los trabajos y, en particular, cumplir la normativa aplicable en materia de Seguridad y Salud.

j) Udal-teknikariekiko koordinazioa bermatzea, bai eta, hala badagokio, jardueretan parte hartzen duten gainerako enpresa hornitzaileekiko eta beste hirugarren batzuekiko koordinazioa ere, jarduerak prestatu, ekoitzi eta behar bezala garatzeko.

j) Garantizar la coordinación con el personal técnico municipal y, en su caso, con las demás empresas suministradores y otros terceros que participen en las actividades, para la preparación, la producción y el adecuado desarrollo de las mismas.

k) Ekitaldiaren koordinatzaile teknikoak Udalari garaiz eta behar bezala jakinarazi behar dio ekitaldi bakoitzak zer eskakizun eta behar elektriko dituen.

k) Informar al Ayuntamiento, en tiempo y forma, a través del coordinador técnico de la actividad, qué requerimientos y necesidades eléctricas tiene cada evento.

l) Beharrezkoak diren seinale-azpiegiturak eta azpiegitura elektrikoak hornitzea, eta, bereziki, argiztapenerako, soinu eta ikusentzunezkoetarako, Udalak ondorio horietarako hornitutako azpiegiturari konektatutako elektrizitatea banatzeko azpikoadroak, zeintzuk ekipo guztiak

l) Proporcionar las infraestructuras de señal y eléctricas necesarias y, especialmente, los sub-cuadros de distribución eléctrica conectados a la infraestructura suministrada a dichos efectos por el Ayuntamiento para la iluminación, sonido y audiovisuales de

elikatu beharko dituzten. Instalazio eta koadro horiek Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian aurreikusitakoa bete beharko dute.

los que se deberán alimentar todos los equipos. Dicha instalación y cuadro deberán cumplir con lo previsto en el Reglamento Electrotécnico de Baja tensión y la demás normativa que les resulte de aplicación.

m) Bitarteko osagarri guztiak eta segurtasun-bitarteko guztiak jartzea, hala nola, kableak pasatzeko kanalak eta gainerako elementuak, seinaleak eta energia komunikatzeko behar bezala dimentsionatuak eszenaren eta sistemen kontrol-posizioaren artean, pertsonak eta ibilgailuak segurtasunez igaro daitezen bermatzeko, eta istripu edo arazo elektriko edo seinale-arazo oro saihesteko.

m) Proporcionar todos los medios auxiliares y de seguridad, tales como canales pasacables y demás elementos, debidamente dimensionados para la comunicación de señales y energía entre escena y posición de control de los sistemas, que permitan garantizar el paso de personas y vehículos con seguridad, evitando cualquier tipo de accidente o problema eléctrico o de señal.

n) Egindako ekintza edo gertaera bakoitzeko gauzatutako zerbitzu-parte bat idaztea, egindako jardueraren xehetasunak adieraziz, bai eta gertatutako gorabeheren zerrenda ere, muntaketaren koordinatzaileak sinatuta. Udalak ahalmena izango du egoki deritzen egintzetan zerbitzu-parteak eskatzeko, eta adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da beti eskura izatea.

n) Redactar un parte de servicio ejecutado por cada acto o evento realizado, indicando los detalles de la actividad realizadas, así como la relación de incidencias que hayan podido tener lugar, firmado por la persona coordinadora del montaje. El Ayuntamiento se reserva la facultad de solicitar los partes de servicios de los actos realizados que considere oportunos, siendo responsabilidad de la adjudicataria tenerlos siempre a su disposición.

o) Adjudikaziodunaren arduraduna izendatzea, plegu honetan, 6.1 atalean, aurreikusitakoaren arabera.

o) Designar un responsable de la adjudicataria en los términos previstos en el apartado 6.1 del presente pliego.

p) Hileko txostenak ematea, fakturatutako hilean egindako lanen zerrendarekin. Era berean, adjudikaziodunak urteko memoria aurkeztuko du. Memoria horretan, kontratuaren urtekoan egindako zerbitzu guztien zerrenda jasoko du, zerbitzu bakoitzaren eguna eta zenbatekoa adierazita. Urteko memoria formatu editagarrian (Excel/Word) eta PDF formatuan aurkeztuko da, urte bakoitza amaitu eta 60 eguneko epean gehienez.

p) Facilitar memorias mensuales con la relación de trabajos efectuados en el mes facturado. Igualmente, la adjudicataria presentará una memoria anual en la que recogerá un listado completo de todos los servicios realizados en la anualidad del contrato, con fecha e importe de cada servicio. La memoria anual se presentará en formato editable (Excel/ Word) así como en formato PDF, en un plazo no superior a 60 días a contar desde la finalización de cada anualidad.

Hileko eta urteko memorietan, une bakoitzean Amaia KZn eta/edo CBAn dagoen zuzkiduraren erabilera-kopurua zehaztuko da, bai eta esleipendunak eskainitako ekipoen erabilerena ere, jarduera bakoitzari dagokionez.

En las memorias mensuales y anuales se especificarán el número de usos de la dotación existente en cada momento en el Amaia KZ y/o en el CBA, así como de los equipos ofertados por la adjudicataria, con relación a cada actividad.

3.2 ESTALDURATIK KANPOKOAK

a) Hartune moduan eta konexio elektrikoko koadro orokorrean energia orokorra hornitzea, ekitaldiaren eskakizun teknikoetara egokitutako potentziarekin. Energiaren hornidura orokorra beste udal-zerbitzu batzuek edo hirugarrenek egingo dute. Eskakizun elektrikoak behar beste denboraz koordinatu eta eskatuko dira.

b) Eszenatokiak eta karpak muntatzea muntaia eszenikoetarako edo beste jarduera batzuetarako. Udalak agertokiak edo karpak jarriko ditu ikuskizunak egiteko.

c) Aulkiak eta harmailak hornitu, banatu eta instalatzea ekitaldietarako, parte-hartzaileek eta ikusleek erabil ditzaten.

d) Alokairu-araubidean hornitzea San Pedro eta San Martzial jaien esparruan egingo diren kontzertuetan, jaialdietan edo lizitazioaren xede diren ekitaldietan erabiliko diren ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko eszenikoak (gaur egun San Juan plazako eta Urdanibia plazako agertokiak), edo dagozkien artistekin giltza eskuan formula bidez.

3.2 EXCLUSIONES

a) Suministrar de energía general en modo de acometida y cuadro general de conexión eléctrica con la potencia adecuada a los requerimientos técnicos del evento. El suministro general de energía será realizado por otros servicios municipales o terceros. Se coordinarán y solicitarán los requerimientos eléctricos con anterioridad suficiente.

b) Montar escenarios y carpas para montajes escénicos u otras actividades. El Ayuntamiento dotará de los escenarios o carpas para los montajes escénicos donde se desarrollarán los espectáculos.

c) Suministrar, distribuir e instalar sillas y gradas para el uso de los asistentes y espectadores para los eventos.

d) Suministrar en régimen de alquiler los medios audiovisuales y escénicos a utilizar para los conciertos que se celebren en el marco de las fiestas de San Pedro y San Marcial (actualmente escenarios de Plaza San Juan y Plaza Urdanibia), festivales o eventos objeto de licitación, o bajo fórmulas llave en mano con los correspondientes artistas.

4. PROGRAMAZIO AURREIKUSIA ETA EKINTZA MOTAK

Gutxi gorabeherako kalkulua egiteko, kontratuaren urte baterako aurreikusitako espazioak eta jardueren gutxi gorabeherako kopurua zehazten dira.

a) AMAIA KZ

4. PROGRAMACIÓN ESTIMADA Y TIPOS DE ACTOS

A modo meramente estimativo, se detallan los espacios y el número orientativo de actividades prevista para una anualidad del contrato.

a) AMAIA KZ

- 30 ekoizpen zinematografiko.
- Ikus-entzunezko 5 emanaldi.
- Anplifikatu gabeko musikako 9 kontzertu.
- Musika anplifikatuko 36 kontzertu.
- 67 emanaldi eszeniko.
- 20 askotariko emanaldi.
- 3 erakusketa.

b) CBA

Aurki irekiko den ekipamendu bat da. Jardueren historikorik ez dagoenez, Amaia KZren antzeko eskema planteatzen da erreferentzia gisa:

- 22 ekoizpen zinematografiko.
- Ikus-entzunezko 5 emanaldi.
- Anplifikatu gabeko musikako 27 kontzertu.
- Musika anplifikatuko 9 kontzertu.
- 67 emanaldi eszeniko.
- 20 askotariko emanaldi.
- 3 erakusketa.

c) Aire zabalean eta beste espazio batzuetan

- 5 ekoizpen zinematografiko.
- Musika anplifikatuko 7 kontzertu.
- Anplifikatu gabeko musikako 2 kontzertu.
- 15 emanaldi eszeniko.
- 31 askotariko emanaldi.
- Diziplina anitzeko ekitaldia karpan zenbait egunetan (2-3 egun).

Nolanahi ere, eman beharreko zerbitzuak programazioaren arabera aldatuko dira.

5. ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK

a) Ekipamendu guztia, indarrean dagoen Tentsio Baxuko Araudi Elektroteknikoa eta bere osagarriak betez instalatuko da.

b) Jasotze-sistemek dibidieta, ASB

- 30 producciones cinematográficas.
- 5 presentaciones audiovisuales.
- 9 conciertos de música no amplificada.
- 36 conciertos de música amplificada.
- 67 representaciones escénicas.
- 20 variedades.
- 3 exposiciones.

b) CBA

Se trata de un equipamiento de próxima apertura. Ante la ausencia de un histórico de actividades, se plantea a modo de referencia un esquema similar al del Amaia KZ:

- 22 producciones cinematográficas.
- 5 presentaciones audiovisuales.
- 27 conciertos de música no amplificada.
- 9 conciertos de música amplificada.
- 67 representaciones escénicas.
- 20 variedades.
- 3 exposiciones.

c) Al aire libre y en otros espacios

- 5 producciones cinematográficas.
- 7 conciertos de música amplificada.
- 2 conciertos de música no amplificada.
- 15 representaciones escénicas.
- 31 variedades.
- Evento multidisciplinar en carpa varios días (2-3 días).

En todo caso, los servicios a prestar quedarán sujetos a modificación en función de la programación.

5. OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA

a) Todo el equipamiento será instalado bajo el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión en vigor y sus complementarias.

b) Los sistemas de elevación estarán

segurtasun-sistema eta IPB sistema edukiko dituzte, homologatuta egongo dira eta urteko mantentze-lanen aginduzko fitxak edukiko dituzte, jasotze-makinen erregelamenduaren eta fabrikatzaileen jarraibideen arabera.

equipados con cabrestante, sistema de seguridad ASB y sistema IPB, estarán homologados y vendrán con sus preceptivas fichas de mantenimiento anual según el reglamento de maquinarias de elevación e indicaciones de los fabricantes.

c) Jasogailuak osatzen dituzten profilak, hodiak eta osagaiak gaindimentsionatuta egongo dira, eta 3/1 haustura-marjina izango dute. Urkila erregulagarri eta doigarriak edukiko dituzte (60 mm), eta oinarrian hanka angeluzuzenak edukiko dituzte, inolako okertzerik edo deformaziorik sortu ez dadin.

c) Los perfiles, tubos y componentes que conforman los elevadores estarán sobredimensionados con margen de rotura 3/1. Dispondrán de horquillas regulables y ajustables (60 mm) y base provista de patas rectangulares para evitar arqueos y deformaciones de cualquier tipo.

d) Hirugarrenek egitura osagarrien txarrantxatze-baldintzak egiaztatuko dituzte eta ingeniari teknikoak gainbegiratuko ditu, muntatu aurretik.

d) Se verificarán las condiciones de arriostramiento de las estructuras auxiliares a las existentes por terceros y supervisadas por el Ingeniero/a Técnico/a, antes del montaje.

e) Ekipo elektroniko guztiak garraiatzeko flight case bidez finkatuta egongo dira.

e) Todos los equipos electrónicos estarán enracados en flight case de transporte.

f) Kable guztiak sistema bakoitzaren konexio-tipologiarekin bat datozen konektore eta kable profesionalekin eginak izango dira, erregelamendua eta araudia betez.

f) Todo el cableado estará realizado con conectores y cableados profesionales acordes a la tipología de conexión de cada sistema y ajustados a Reglamento y normativa.

6. GIZA BALIABIDEAK

6.1 Giza baliabideak atxikitzea

Adjudikaziodunak, jarduera bakoitzaren ezaugarrien arabera, behar diren langileak jarriko ditu kontratua behar bezala betetzeko, Udalak onetsi ondoren.

Horretarako, adjudikaziodunak kontratua exekutatzeko behar adina langile eduki behar ditu, eta horiek ondoren adierazten diren funtzioak, prestakuntza, ezagutza, esperientzia edo ziurtagiriak eduki behar dituzte:

6. RECURSOS HUMANOS

6.1 Adscripción de medios personales

La adjudicataria asignará a la correcta ejecución del contrato el personal que resulte necesario en función de las características de cada actividad, previa aprobación del Ayuntamiento.

A dichos efectos, la adjudicataria deberá contar, como mínimo, con personal cuyas funciones, formación, conocimientos, experiencia o certificaciones se indican a continuación, en número suficiente para la ejecución del contrato:

Lanak/Funciones	Baldintzak/Requisitos

Adjudikaziodunaren arduraduna:	Baldintza-plegu honetan aurreikusitako jarduerak ikuskatzeaz eta txostenak, parteak eta memoriak idazteaz arduratuko da. Adjudikaziodunaren ordezkaria izango da, Irungo Udalak emandako zerbitzu-aginduen arabera lanak behar bezala egin ditzan. Bere gain hartuko du kontratatutako lanak egiteko eta adjudikazioduneko gainerako langileekin zuzeneko harremana izateko ardura osoa. Udalarekin solaskide izateko balioa izango du, eta lokalizatuta egon beharko du, edo, bestela, aldez aurretik ordezkoa izendatuta eta jakinarazita egon beharko du, eta horrek profesionalki eta erabakiak hartzeko gaitasun bera izango du. Kontratuaren arduradunak erabateko prestasuna izango du, eta telefono mugikorraren bidez beti jarri ahal izango da harekin harremanetan.	Gutxienez LH IIko titulazioa eduki beharko du, eta eremu eszenikoan gutxienez bost (5) urteko lan-esperientzia duela egiaztatu beharko du.
